

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskal Irrati Telebista  
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa  
(EITB) eta mendeko dituen sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado  
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca  
(EITB) y sus sociedades dependientes**

**2018**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legeak betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRITZIA.....	9
III.1 Langileria.....	9
III.2 Kontratazioa.....	10
III.3 Beste alderdi batzuk.....	10
IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA.....	11
IV.1 EITB eta Taldeko sozietateen kontu bateratuak.....	11
IV.2 EITBren eta Taldeko sozietateen banako kontuak.....	13
IV.3 EITBren eta Taldeko sozietateen aurrekontuen likidazioa.....	19
ERANSKINAK.....	21
A.1 Izaera eta araudi ezargaria.....	21
A.2 Langile-gastuak eta plantillak.....	22
A.3 Ekoizpenarekin lotutako gastuak eta inbertsioak.....	24
A.4 Kontratazioa.....	25
ALEGAZIOAK.....	27



<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>31</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>33</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>34</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad .....	34
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	34
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>35</b>
III.1 Personal.....	35
III.2 Contratación.....	36
III.3 Otros aspectos .....	36
<b>IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS .....</b>	<b>37</b>
IV.1 Cuentas consolidadas de EITB y sociedades del Grupo .....	37
IV.2 Cuentas individuales de EITB y sociedades del Grupo.....	39
IV.3 Liquidación de presupuestos de EITB y sociedades del Grupo.....	45
<b>ANEXOS .....</b>	<b>47</b>
A.1 Naturaleza y normativa aplicable .....	47
A.2 Gastos de personal y plantillas.....	48
A.3 Gastos e inversiones relacionados con la producción .....	50
A.4 Contratación.....	51
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>53</b>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 29a

Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 2021



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

5/1982 Legea	5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, “Euskal Irrati Telebista” erakunde publikoa sortzen duena.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EI	Eusko Irratia SA kide bakarreko sozietatea.
EITB	Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa.
Eitbnet	Eitbnet SA kide bakarreko sozietatea.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
ENG	Electronic News Gathering (Albisteak elektronikoki jasotzea).
ETB	Euskal Telebista SA kide bakarreko sozietatea.
GI	Gasteiz Irratia, SA Kide bakarreko sozietatea.
LIGS	Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantza.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz, Euskal Irrati Telebista (aurrerantzean EITB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta mendeko dituen sozietateen 2018ko Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, baita kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarritzen duten lan paperen azterketa ere.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, bere gain hartu zituen eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

Irrati-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: ETB, EI, GI eta Eitbnet. Horrez gain, 2018ko abenduaren 31n Eitbnet-ek % 24,62ko partaidetza du Expressive Media Proyects SLn.

EiTB eta mendeko sozietateak (Eitb da horien akzioen titular bakar) EAEren Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearen 45 artikulua agintzen duenaren arabera. Bestetik, Eitbnet Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatzen da.

2018ko ekitaldian EJrekin 2016-2019 aldirako izenpetutako Kontratu-Programa berria dago indarrean; kontratu horrek, aurrekoek bezala, Erakundeak bere gain hartu dituen irrati-hedapen eta telebistako zerbitzu publikoaren edukiak definitzen ditu eta irrati, telebista eta Interneteko zerbitzu publikoa emateko helburuak eta hartutako konpromisoak zehazten ditu. Berebat, Kontratu-Programak epe horretan Eusko Jaurlaritzak egingo dituen ekarpenak zehazten ditu: 473,1 milioi euro ustiapen gastua berdintzeko; 11,4 milioi euro ibilgetuko inbertsioak finantzatzeko eta 19,9 milioi euro Europako obra zinematografikoetan nahitaezko finantzaketari dagozkionak.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **II. IRITZIA**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

1. Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitza Probintzialak egindako errekerimenduekin bat etorriz, edo demanda aurkeztu ondoren judizioz kanpoko akordio baten bidez, ETBk eta Elk, hurrenez hurren, aldi baterako 34 langile eta langile 1 mugagabe bihurtu dituzte, Langileen Estatutuan ezarritako aldi baterako kontratazio-denbora gainditu dutelako.

Epaitegi honen ustetan, Erakundeak eta mendeko sozietateek aurreko paragrafoan aipatutako ez-betetzea alde batera, zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

### **II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, EITB Taldearen 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuek ez ezik, EITBren eta mendeko bere sozietateen urteko kontu banakakoek alderdi esanguratsu guztietan abenduaren 31n jardura ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 LANGILERIA (ikus A.2)

##### Zuzendaritzako postuak eta ardurako karguak

2018ko ekitaldiari dagokion goi-karguen katalogoan EITB taldeko zuzendaritzako kide hauek daude: EITBko zuzendari nagusia, EITBko zuzendari kudeatzailea, EITBko zuzendaria eta EITB Irratiko zuzendari koordinatzailea.

2018ko azaroaren 27an onartutako EITBko organigraman, aurreko paragrafoan jasotako 4ez gain, zuzendaritzako beste 71 lanpostu ageri dira. Horietatik 45, taldeko langile finkoak dira; 24, aurretik EITB taldearekin inongo kontratu-loturarik ez zuten langileak dira eta 2 hutsik daude 2018ko abenduaren 31n. Guztiek eskuratu dute lanpostua profesionaltasun irizpideak oinarri hartuta (5/1982 Legearen 16.2.f artikulua) eta izendapena alde aurretik Administrazio Kontseiluari jakinarazi zitzaion.

Gainera, 2018ko abenduaren 31n indarrean zegoen plantillan 23 pertsona onartutako zuzendaritzakoen organigraman jaso gabeko ardurazko lanpostuetan ageri dira, aurreko ekitaldietan profesionaltasun irizpideen arabera kontraturikoak. Horietako 5ek ez zuten aurretik inongo harreman profesionalik EITB taldearekin, 7, taldeko langile finkoak ziren eta 11k aurretik aldi baterako lan-harremana zuten. Izendapen hauen indarraldia egungo zuzendaritza-taldearen agintaldiari lotuta dago. Lanpostu horiek deialdi publiko bidez bete behar dira eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen arabera.

Lanpostu guzti hauek direla eta, esan behar da:

- Gomendagarria litzateke Administrazio Kontseiluak organigramaren aldaketa onartzea eta zuzendaritzako edo goi mailako egitekoak betetzen dituzten lanpostu haiek soilik barne hartzea.
- 5/1982 Legearen 16.2.f artikulua lanpostu hauek Zuzendaritza Nagusiaren izendapen bitartez betetzea aurreikusten du, profesionaltasun irizpideak baliatuta. Nolanahi den ere, gomendagarria litzateke, betiere bete asmo den lanpostuaren arabera, hautaketa publikotasun printzipioa gordetzen duten sistemak baliatuta egitea.
- Organigraman jaso gabeko zuzendaritza postuen erantzukizuneko lanpostuen beharrak eta ezaugarriak, betetzeko sistema, balioa eta ordainsaria irizpide objektiboen arabera zehaztea gomendatzen dugu.

##### Lan-poltsak

Aldi baterako langileen kontrataziorako, orokorrean, lan-deialdi publikoetako lan-poltsa barematuak erabiltzen dira. Lan-poltsa horiek existitzen ez diren edo agortuta dauden



kasuetan, hainbat iturritatik lortzen diren beste lan-poltsa batzuk erabiltzen dira, kideen merezimenduak eta gaitasunak sailkatuko dituen lehentasun-hurrenkerarik gabe. Gomendagarria litzateke erabili beharreko lan-poltsak berritzea.

### III.2 KONTRATAZIOA (ikus A.4)

- 5 espedientetan (5, 6, 7, 8 eta 9 zk.), administrazio-klausula zehatzen agirian edo lizitazioa arautzen duen dokumentuan jasotako lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez da zehazkatzen zuzeneko eta zeharkako kostuak eta horiek zehazteko kalkulaturako balizko beste gastu batzuk adieraziz, ez eta soldaten kostua ere, hala badagokio, merkatuko prezioetara egokitzen direla justifikatzeko.
- SPKLren arabera lizitatutako 5 espedienteetan (5, 6, 7, 8 eta 9 zk.), 1,6 milioi euroan esleitutakoetan, ez da formalizatutako kontratua kontratatzailearen profilean argitaratu.
- ETBk 80.952 euro gastatu ditu, BEZa barne, aurreko ekitaldian aleko prezioen arabera esleitutako bi zerbitzu-kontraturen (13. eta 14. zk.) pleguetan aurreikusitako aldaketak formalizatu gabe.
- 2018an ETBk 511.310 euro gastatu ditu mugaeguneratutako kontratuen kontzeptuarekin (11 eta 12 zk.). Aurreko kontratuaren epemuga iritsi baino lehen hasi ziren kontratu berriak izapidetzen.

### III.3 BESTE ALDERDI BATZUK

#### Hornitzaileei ordainketa epeak

EITBk 2018ko ekitaldian guztira 1,8 milioi euroren zenbatekoa ordaindu du (2018ko ekitaldian ordainketa guztien % 33) eta SPKLTBren 216. eta SPKLren 198. artikuluetan zehaztutako 30 eguneko gehieneko epea gainditu du.

Mendeko sozietateek 2018ko ekitaldian guztira 7,7 milioi euro ordaindu dituzte (ordainketa guztien % 7) 60 eguneko gehieneko epea gaindituta, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikulua finkatzen duen gehieneko epea. Gainera, 2018ko abenduaren 31n ordaintzeke dagoen saldotik 620.696 euroren zenbatekoak (saldo osoaren gainean % 5) 60 egunetik gorako antzintasuna du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

### IV.1 EITB ETA TALDEKO SOZietATEEN KONTU BATERATUAK

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n bateratutako eta auditatutako balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbian aldaketan egoera-orria eta eskudiruzko fluxuen egoera-orria:

EGOERA-BALANTZE BATERATUAK			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>52.555</b>	<b>53.115</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>67.072</b>	<b>66.855</b>
Ibilgetu ukiezina.....	6.865	7.731	Funts propioak.....	55.814	55.458
Ibilgetu materiala.....	45.454	45.250	Funts soziala.....	83.766	79.866
Taldeko eta elkart. enpresetan e/luz. inber.....	236	134	Sozietate bateratuetan erreserbak.....	(21.046)	(17.497)
<b>AKTIBO ARRUNTA.....</b>	<b>38.936</b>	<b>36.695</b>	Baliokidetzan jarritako soz. erreserbak.....	(12)	(61)
Izakinak.....	5.879	6.487	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(3.350)	(2.823)
Merkat. zordunak eta kobr. bestel. knt.....	8.281	13.442	Ekitaldiko emaitza.....	(3.544)	(4.027)
Taldeko eta elkart. enpres. e/motz. inber.....	70	370	Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	11.258	11.397
Finantza inbertsioak e/motz.....	78	11	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>24.419</b>	<b>22.955</b>
Aldizkakotzeak e/motz.....	33	39	E/motz. zuzkidurak.....	4.017	4.787
Eskud. eta b.aktibo likido baliokide batz.....	24.595	16.346	E/motzeko zorrak	2.130	1.926
			Merkat. hartzek. & ordaint. b.kontu batz.....	18.272	16.242
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>91.491</b>	<b>89.810</b>	<b>ONDARE GARB. &amp; PASIB.GUZT.</b>	<b>91.491</b>	<b>89.810</b>

GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA		Euroak milakotan	
	2018	2017	
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	12.849	13.782	
Izakin bariazioa.....	(532)	(871)	
Hornikuntzak.....	(46.673)	(45.126)	
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	124.231	123.135	
Langileen gastuak.....	(61.341)	(62.771)	
Bestelako ustiapen gastuak.....	(28.639)	(28.222)	
Ibilgetua amortizatzea.....	(8.834)	(7.631)	
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egoztea.....	5.189	3.563	
Beste emaitza batzuk.....	56	(71)	
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>(3.694)</b>	<b>(4.212)</b>	
Finantza sarrerak, finantza gastuak eta truke aldeak.....	48	137	
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>48</b>	<b>137</b>	
Baliokidetasunean jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) partaidetza.....	102	48	
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>(3.544)</b>	<b>(4.027)</b>	
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	
<b>EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA</b>	<b>(3.544)</b>	<b>(4.027)</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ONDARE GARBI BATERATUAN ALDAKETEN EGOERA-ORRIAK

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA BATERATUAK	Euroak milakotan	
	2018	2017
<b>Galera eta irabazien kontuaren emaitza</b>	<b>(3.544)</b>	<b>(4.027)</b>
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrerak eta gastuak .....	5.050	5.050
Galera eta irabazien kontura transferentziak guztira.....	(5.189)	(3.563)
<b>AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU BATERATUAK GUZTIRA</b>	<b>(3.683)</b>	<b>(2.540)</b>

## B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA BATERATUAK GUZTIRA

	Euroak milakotan				
	GIZARTE FUNTSA ETA ERRESERBAK	AURREKO EKITALD. EMAITZAK	EKIT. EMAITZ.	JASOTAKO DIRUL., DOH. ETA LEGAT.	GUZTIRA
	<b>2016KO URTEKO DOITUTAKO AZKEN SALDOA</b>	<b>63.449</b>	<b>(2.238)</b>	<b>(4.393)</b>	<b>9.909</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak .....	-	-	(4.027)	1.488	(2.539)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	2.695	-	-	-	2.695
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	(3.808)	(585)	4.393	-	-
Bestelakoak .....	(28)	-	-	-	(28)
<b>2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>62.308</b>	<b>(2.823)</b>	<b>(4.027)</b>	<b>11.397</b>	<b>66.855</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak .....	-	-	(3.544)	(139)	(3.683)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	3.900	-	-	-	3.900
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	(3.500)	(527)	4.027	-	-
<b>2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>62.708</b>	<b>(3.350)</b>	<b>(3.544)</b>	<b>11.258</b>	<b>67.072</b>

## ESKUDIRUAREN BATERATUTAKO FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	Euroak milakotan	
	2018	2017
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(3.544)	(4.027)
Emaitzari doikuntzak.....	4.892	6.737
Kapital arruntean aldaketak .....	5.515	(3.987)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	57	17
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>6.920</b>	<b>(1.260)</b>
Inbertsioen ordainketak .....	(7.899)	(6.533)
Desinbertsioengatik kobrantzak .....	300	160
<b>INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(7.599)</b>	<b>(6.373)</b>
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	8.950	7.745
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak.....	(12)	8
<b>FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>8.938</b>	<b>7.753</b>
<b>TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA</b>	<b>(10)</b>	<b>120</b>
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA</b>	<b>8.249</b>	<b>(240)</b>
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	16.346	16.106
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	24.595	16.346



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.2 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN BANAKO KONTUAK

Abenduaren 31n urteko kontuak honako hauek dira:

BALANTZEA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB	
	2018	2017	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>66.670</b>	<b>66.471</b>	<b>34.594</b>	<b>34.800</b>
Ibilgetu ukiezina.....	686	696	6.178	7.025
Ibilgetu materiala.....	15.815	16.380	28.416	27.775
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak.....	50.056	49.282	-	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	113	113	-	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>24.807</b>	<b>18.752</b>	<b>32.467</b>	<b>29.669</b>
Izakinak.....	-	-	5.879	6.487
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	225	2.419	6.766	9.489
Taldeko enpresetan epe motzeko inbertsioak.....	-	-	19.709	13.643
Epe motzeko finantza inbertsioak.....	-	-	77	11
Aldizkakotzeak.....	4	6	26	29
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	24.578	16.327	10	10
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>91.477</b>	<b>85.223</b>	<b>67.061</b>	<b>64.469</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Euroak milakotan			
	EITB		ETB	
	2018	2017	2018	2017
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>66.982</b>	<b>66.849</b>	<b>47.244</b>	<b>46.681</b>
Funts propioak.....	66.353	66.208	36.615	35.926
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	629	641	10.629	10.755
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>585</b>	<b>477</b>	-	-
Epe luzeko hornidurak.....	585	477	-	-
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>23.910</b>	<b>17.897</b>	<b>19.817</b>	<b>17.788</b>
Epe motzeko hornidurak.....	2	35	2.802	2.990
Epe motzeko zorrak.....	7	30	2.074	1.830
Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe laburreko zorrak.....	22.509	17.137	-	-
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.....	1.392	695	14.941	12.968
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>91.477</b>	<b>85.223</b>	<b>67.061</b>	<b>64.469</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB	
	2018	2017	2018	2017
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	-	-	11.840	12.397
Izakinen bariazioa .....	-	-	(532)	(872)
Hornikuntzak .....	(68)	(39)	(47.296)	(45.629)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	8.859	7.893	98.396	97.073
Langileen gastuak .....	(4.175)	(4.286)	(38.237)	(39.028)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(4.573)	(3.496)	(24.199)	(24.226)
Ibilgetua amortizatzea.....	(594)	(603)	(8.089)	(6.872)
Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egoztea .....	12	12	5.177	3.550
Bestelakoak .....		-	56	(70)
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>(539)</b>	<b>(519)</b>	<b>(2.884)</b>	<b>(3.677)</b>
Sarrera finantzarioak.....	2	-	11	5
Finantza gastuak eta truke-aldeak.....	(3)	(7)	(12)	118
Baliabide finantzarioak besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza .....	(3.215)	(1.996)	-	-
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(3.216)</b>	<b>(2.003)</b>	<b>(1)</b>	<b>123</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>(3.755)</b>	<b>(2.522)</b>	<b>(2.885)</b>	<b>(3.554)</b>
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>(3.755)</b>	<b>(2.522)</b>	<b>(2.885)</b>	<b>(3.554)</b>

## BALANTZEA

Euroak milakotan

	EI		GI		Eitbnet	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>202</b>	<b>214</b>	<b>924</b>	<b>847</b>	<b>131</b>	<b>60</b>
Ibilgetu ukiezina.....	-	-	-	-	1	11
Ibilgetu materiala .....	202	214	924	847	97	33
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak .....	-	-	-	-	33	16
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>3.315</b>	<b>3.898</b>	<b>791</b>	<b>702</b>	<b>566</b>	<b>811</b>
Izakinak .....	-	-	-	-	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b. ....	1.329	1.223	225	151	237	160
Taldeko enpresetan epe motzeko inbertsioak.....	1.978	2.665	563	549	328	650
Epe motzeko finantza inbertsioak .....	-	-	-	-	1	1
Aldizkakotzeak .....	2	2	2	1	-	-
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk .....	6	8	1	1	-	-
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>3.517</b>	<b>4.112</b>	<b>1.715</b>	<b>1.549</b>	<b>697</b>	<b>871</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Euroak milakotan

	EI		GI		Eitbnet	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>806</b>	<b>752</b>	<b>1.156</b>	<b>999</b>	<b>(585)</b>	<b>(476)</b>
Funts propioak.....	646	588	1.229	1.059	383	305
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(48)	-	(97)	(175)	(884)	(876)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	212	212	37	37	103	103
Ekitaldiko emaitza.....	(4)	(48)	(13)	78	(187)	(8)
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>850</b>	<b>850</b>
Taldeko eta kidetutako enpresekiko epe luzeko zorrak.....	-	-	-	-	850	850
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>2.711</b>	<b>3.360</b>	<b>559</b>	<b>550</b>	<b>432</b>	<b>497</b>
Epe motzeko hornidurak.....	1.071	1.504	142	170	-	89
Epe motzeko zorrak.....	12	29	29	15	7	22
Taldeko & elkartutako enpresekiko zorr. epe motzera.....	-	-	-	-	-	-
Merkat. hartzekod. eta ordaint. bste knt batz. ....	1.628	1.827	388	365	425	386
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>3.517</b>	<b>4.112</b>	<b>1.715</b>	<b>1.549</b>	<b>697</b>	<b>871</b>

#### GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EI		GI		Eitbnet	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	3.967	3.943	583	575	3.584	3.528
Hornikuntzak.....	(1.974)	(2.112)	(265)	(259)	(112)	(80)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	18.050	18.701	3.349	3.646	-	-
Langileen gastuak.....	(13.941)	(14.374)	(2.485)	(2.681)	(2.503)	(2.401)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(6.104)	(6.162)	(1.113)	(1.123)	(1.157)	(1.060)
Ibilgetua amortizatzea.....	(39)	(50)	(82)	(80)	(29)	(26)
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>(41)</b>	<b>(54)</b>	<b>(13)</b>	<b>78</b>	<b>(217)</b>	<b>(39)</b>
Sarrera finantzarioak.....	37	6	-	-	13	18
Finantza gastuak eta truke-aldeak.....	-	-	-	-	-	(3)
Baliab. finantz. bestereng. narriadura & emaitza.....	-	-	-	-	17	16
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>37</b>	<b>6</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>30</b>	<b>31</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>(4)</b>	<b>(48)</b>	<b>(13)</b>	<b>78</b>	<b>(187)</b>	<b>(8)</b>
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	-
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(4)</b>	<b>(48)</b>	<b>(13)</b>	<b>78</b>	<b>(187)</b>	<b>(8)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

### A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB	EI	GI	Eitbnet
Galera eta irabazien kontuaren emaitza .....	(3.755)	(2.885)	(4)	(13)	(187)
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak .....	-	5.050	-	-	-
Galera-irabazietara transferentziak .....	(13)	(5.177)	-	-	-
<b>DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA</b>	<b>(3.768)</b>	<b>(3.012)</b>	<b>(4)</b>	<b>(13)</b>	<b>(187)</b>

### B) ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	ESKRITURAN JASOTAKO KAPITALA	AURREKO EKITAL. EMAITZA	EKIT. EMAITZA.	JASOTAKO DIRUL., DOH. ETA LEGAT.	GUZTIRA
<b>EITB</b>					
<b>2016KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>77.171</b>	<b>(5.709)</b>	<b>(5.427)</b>	<b>653</b>	<b>66.688</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(2.522)	(12)	(2.534)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	2.695	-	-	-	2.695
Emaitzen banaketa .....	-	(5.427)	5.427	-	-
<b>2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>79.866</b>	<b>(11.136)</b>	<b>(2.522)</b>	<b>641</b>	<b>66.849</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(3.755)	(12)	(3.767)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	3.900	-	-	-	3.900
Emaitzen banaketa .....	-	(2.522)	2.522	-	-
<b>2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>83.766</b>	<b>(13.658)</b>	<b>(3.755)</b>	<b>629</b>	<b>66.982</b>

Euroak milakotan

	BAZKIDEEN KAPITALA/ BESTE EKARP.BATZ.	AURREKO EKITALD. EMAITZA	EKIT. EMAITZA	JASOTAKO DIRUL., DOH. ETA LEGAT.	GUZTIRA
<b>ETB</b>					
<b>2016KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>53.507</b>	<b>(12.594)</b>	<b>(3.922)</b>	<b>9.255</b>	<b>46.246</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(3.554)	1.500	(2.054)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	2.489	-	-	-	2.489
Emaitzen banaketa .....	-	(3.922)	3.922	-	-
<b>2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>55.996</b>	<b>(16.516)</b>	<b>(3.554)</b>	<b>10.755</b>	<b>46.681</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(2.885)	(126)	(3.011)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	3.574	-	-	-	3.574
Emaitzen banaketa .....	-	(3.554)	3.554	-	-
<b>2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>59.570</b>	<b>(20.070)</b>	<b>(2.885)</b>	<b>10.629</b>	<b>47.244</b>

.../...





Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

	KAPITALA/ BESTE EKARP.BATZ./ PRIMAK / ERRESERB.	AURREKO EKIT. EMAITZAK	EKIT. EMAITZ.	JASOTAKO DIRUL., DOH. ETA LEGAT.	GUZTIRA
<b>EI</b>					
<b>2016KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>697</b>	<b>(213)</b>	<b>250</b>	<b>-</b>	<b>734</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(48)	-	(48)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	103	-	-	-	103
Eraitzen banaketa .....	-	213	(250)	-	(37)
<b>2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>800</b>	<b>-</b>	<b>(48)</b>	<b>-</b>	<b>752</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(4)	-	(4)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	58	-	-	-	58
Eraitzen banaketa .....	-	(48)	48	-	-
<b>2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>858</b>	<b>(48)</b>	<b>(4)</b>	<b>-</b>	<b>806</b>
<b>GI</b>					
<b>2016KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>1.076</b>	<b>(37)</b>	<b>(138)</b>	<b>-</b>	<b>901</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	78	-	78
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	20	-	-	-	20
Eraitzen banaketa .....	-	(138)	138	-	-
<b>2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>1.096</b>	<b>(175)</b>	<b>78</b>	<b>-</b>	<b>999</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(13)	-	(13)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	170	-	-	-	170
Eraitzen banaketa .....	-	78	(78)	-	-
<b>2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>1.266</b>	<b>(97)</b>	<b>(13)</b>	<b>-</b>	<b>1.156</b>
<b>Eitbnet</b>					
<b>2016KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>313</b>	<b>(879)</b>	<b>3</b>	<b>-</b>	<b>(563)</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(8)	-	(8)
Bazkide edo jabeen beste ekarpen batzuk.....	95	-	-	-	95
Eraitzen banaketa .....	-	3	(3)	-	-
<b>2017KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>408</b>	<b>(876)</b>	<b>(8)</b>	<b>-</b>	<b>(476)</b>
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira .....	-	-	(187)	-	(187)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak .....	78	-	-	-	78
Eraitzen banaketa .....	-	(8)	8	-	-
<b>2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	<b>486</b>	<b>(884)</b>	<b>(187)</b>	<b>-</b>	<b>(585)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB	EI	GI	Eitbnet
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>					
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(3.755)	(2.885)	(4)	(13)	(187)
Emaitzari doikuntzak.....	3.815	4.115	156	107	-
Kapital arruntean aldaketak .....	8.215	(2.272)	(204)	(118)	(106)
Eskudiruzko beste fluxu batzuk .....	(2)	8	37	-	13
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.273</b>	<b>(1.034)</b>	<b>(15)</b>	<b>(24)</b>	<b>(280)</b>
<b>INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>					
Ordainketak inbertsioengatik .....	(3.922)	(7.568)	(45)	(146)	(98)
Desinbertsioengatik kobrantzak .....	-	-	-	-	300
<b>GUZTIRA</b>	<b>(3.922)</b>	<b>(7.568)</b>	<b>(45)</b>	<b>(146)</b>	<b>202</b>
<b>FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>					
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	3.900	8.624	58	170	78
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak	-	(12)	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.900</b>	<b>8.612</b>	<b>58</b>	<b>170</b>	<b>78</b>
<b>TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA</b>					
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA .....	-	(10)	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>-</b>	<b>(10)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN</b>					
<b>IGOERA/MURRIZKETA GARBIA</b>					
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	16.327	10	8	1	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	24.578	10	6	1	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.251</b>	<b>-</b>	<b>(2)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### IV.3 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIJETATEEN AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

Hona hemen 2018ko ekitaldirako kapital- eta ustiapen-aurrekontuak eta horien likidazioa:

#### KAPITAL-AURREKONTUA


Euroak milakotan

	EITB		ETB		EI		GI		Eitbnet	
	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.
<b>INBERTSIOAK</b>										
Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu negat.	37	-	649	911	201	15	78	24	149	264
Inb. ukiezin, material eta bst. gehitzea	20	20	8.489	7.882	303	28	159	159	92	83
Finantza inbertsioak gehitzea.....	3.880	6.403	66	3.620	-	48	-	8	-	8
Finantza pasib. baliabideak urritzea...	-	22	-	75	-	17	-	-	-	15
Truke tipoen bariazioaren eragina.....	-	-	-	9	-	-	-	-	-	-
Eskudiruaren igoera garbia.....	-	8.252	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>INBERTSIOAK GUZTIRA</b>	<b>3.937</b>	<b>14.697</b>	<b>9.204</b>	<b>12.497</b>	<b>504</b>	<b>108</b>	<b>237</b>	<b>191</b>	<b>241</b>	<b>370</b>
<b>FINANTZAKETA</b>										
Inb. ukiezin, material eta bst. murriztea	-	-	-	-	-	-	-	-	9	-
Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu posit...	-	8.274	-	-	-	-	-	-	-	-
Transferentziak, diru-lag., dohaint.....	-	-	5.050	5.050	-	-	-	-	-	-
Ondare baliabideak gehitzea.....	3.900	6.423	3.574	7.128	58	106	170	178	78	370
Pasibo finantz. baliabideak gehitzea..	-	-	-	319	-	-	24	13	-	-
Eskudiruaren murrizketa garbia.....	37	-	580	-	446	2	43	-	154	-
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>3.937</b>	<b>14.697</b>	<b>9.204</b>	<b>12.497</b>	<b>504</b>	<b>108</b>	<b>237</b>	<b>191</b>	<b>241</b>	<b>370</b>

#### USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB		EI		GI		Eitbnet	
	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.	Aurrek.	Gauzat.
<b>GASTUAK</b>										
Langileen gastuak.....	4.211	4.211	38.797	38.750	14.425	14.387	2.549	2.515	2.592	2.592
Hornikuntzak.....	44	68	47.890	47.296	1.991	1.974	255	264	84	112
Kanpoko zerbitzuak.....	4.199	4.556	23.839	23.724	5.834	5.968	1.168	1.102	1.045	1.156
Zergak.....	3	-	114	122	132	133	4	6	-	1
Gastu finantzarioak.....	-	3	-	-	-	-	-	1	-	-
Eman beharreko dirulaguntzak.....	119.657	119.657	-	-	-	-	-	-	-	-
Kobr. kntuen igoera, ordaintz. murr..	2	-	135	1.319	-	-	48	68	60	17
Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu posit...	-	8.274	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>128.116</b>	<b>136.769</b>	<b>110.775</b>	<b>111.211</b>	<b>22.382</b>	<b>22.462</b>	<b>4.024</b>	<b>3.956</b>	<b>3.781</b>	<b>3.878</b>
<b>DIRU-SARRERAK</b>										
Negozio zifraren zenbat. garbia.....	-	-	9.657	9.658	3.967	3.968	597	583	3.632	3.593
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	4.153	4.588	2.130	2.231	-	-	-	-	-	1
Ustiapen transferentzia/dirulaguntzak	123.926	123.928	98.340	98.347	17.969	18.050	3.349	3.349	-	-
Sarrera finantzarioak.....	-	2	-	64	-	37	-	-	-	20
Kobr. kntuen igoera, ordaintzekoen murr.	-	8.251	-	-	245	392	-	-	-	-
Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu negat.	37	-	648	911	201	15	78	24	149	264
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>128.116</b>	<b>136.769</b>	<b>110.775</b>	<b>111.211</b>	<b>22.382</b>	<b>22.462</b>	<b>4.024</b>	<b>3.956</b>	<b>3.781</b>	<b>3.878</b>





## ERANSKINAK

### A.1 IZAERA ETA ARAUDI EZARGARRIA

EiTB Eusko Legebiltzarraren 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du eta Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik. EiTB kudeatzeko honako sozietate hauek sortu ziren: ETB, EI, GI eta Eitbnet.

EITB eta bere sozietateak EAEren Aurrekontu Orokorren kontura eta egiten dituzten jardueretatik eskuratutako diru-sarrerera eta etekinen bidez finantzatzen dira. Bestalde, Eitbnet Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarrereren bidez finantzatzen da.

Erakundeko eta bere sozietateetako langileak 5/1982 Legeak eta uztailaren 19ko 157/1982 eta 158/1982 Dekretuek, martxoaren 20ko 77/1984 Dekretuak eta maiatzaren 6ko 100/2003 Dekretuak arautzen dituzte, hurrenez hurren ETB, EI, GI eta Eitbnet sortu dituztenak. 5/1982 Legean ezarritakoaz gain, indarrean jarraitzen dute 2018an langile finkoak sartzeko 2003ko abenduaren 23ko arauak, Erakundearen Administrazio Kontseiluan egun berean aurkeztu zirenak.

Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko kontratazioari dagokionez, SPKL Legea 2018ko martxoaren 9an jarri zen indarrean, eta ordura arte SPKLTB egon zen indarrean. Lege berria indarrean sartzean, EITBk administrazio publiko izaera hartuko du kontratazio-araudia aplikatzeari dagokionez.

Ekonomia eta finantzako gainerako alderdietan, besteak beste, honako hauek zaizkio aplikagarri:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 1159/2010 Errege Dekretua, irailaren 17koa, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauak onartzen dituena eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartutako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarrria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 5/2017 Legea, abenduaren 22koa, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.



## A.2 LANGILE-GASTUAK ETA PLANTILLAK

Langile gastuaren xehakapena eta batez besteko plantilla honakoa da:

Euroak milakotan

LANGILEEN GASTUA	EITB	ETB	EI	GI	Eitbnet	GUZTIRA 2018.12.31
Soldatak .....	3.211	29.235	10.669	1.907	1.862	46.884
Gizarte Segurantzza .....	878	8.637	3.060	548	591	13.714
Gizarte gastuak.....	81	365	206	30	50	732
Kalteordainak .....	5	-	-	-	11	16
<b>LANGILERIA GASTUA GUZTIRA</b>	<b>4.175</b>	<b>38.237</b>	<b>13.941</b>	<b>2.485</b>	<b>2.503</b>	<b>61.341</b>
<b>PLANTILLA ERREALA 2018-12-31N</b>						
Zuzendariak .....	21	31	13	3	4	72
Ardurazko postuak .....	9	13	1	-	-	23
Langile finkoak gainerako langileak.....	26	353	128	22	13	542
Lan-kontr. mugagabe ez finkoko langileak	-	77	20	1	29	127
Erretiro partziala .....	2	54	13	5	-	74
Txanda-kontratuak.....	3	48	11	6	-	68
Aldi baterako langileak .....	11	107	94	18	7	237
<b>GUZTIRA 2018.12.31N</b>	<b>72</b>	<b>683</b>	<b>280</b>	<b>55</b>	<b>53</b>	<b>1.143</b>
<b>BATEZ BESTEKO PLANTILLA 2018 (*)</b>						
Zuzendariak, 156/2016 Dekretua.....	2	1	1	-	-	4
Beste zuzendari batzuk .....	6	6	-	-	1	13
Lang. finkoak eta lan-kontr. mugag.e ez finkok.	54	561	217	37	42	911
Aldi baterako langileak .....	5	43	26	7	2	83
<b>GUZTIRA</b>	<b>67</b>	<b>611</b>	<b>244</b>	<b>44</b>	<b>45</b>	<b>1.011</b>
<b>AURREKONTUKO PLANTILLA</b>						
Zuzendariak, 156/2016 Dekretua.....	2	1	1	-	-	4
Beste zuzendari batzuk .....	1	-	-	-	-	1
Lang. finkoak eta lan-kontr. mugag.e ez finkok.	88	546	151	37	-	822
Aldi baterako langileak (*).....	-	109	19	4	19	151
<b>GUZTIRA</b>	<b>91</b>	<b>656</b>	<b>171</b>	<b>41</b>	<b>19</b>	<b>978</b>

(\*) aurrekontua betetzeko oroitidazkietatik eskuratutako datuak.

### Langileen gastuak

2017ko gastuei dagokienez, EITB taldeko langileen ordainsariak % 1,5 igo dira 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25eko igoera gehigarria aplikatu zaie 2018ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.2 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2018ko urriaren 9ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

## Plantilla

Abenduaren 31n, taldeko 127 langilek lan kontratu mugagabe ez finkoak dituzte (guztizkoaren gainean % 19 kontratu mugagabekoak), harik eta Enplegu Deialdi Publikoa deitzen duten arte edo, kasua bada, dagozkion lanpostuak amortizatu arte.

## Aldi baterako kontratuak

Hona hemen 2018an gauzatutako aldi baterako kontratuen laburpena, kontratu-motaren arabera:

Kontratu mota	EITB	ETB	EI	GI	Eitbnet	GUZTIRA
Lanen metatzea .....	2	2.425	340	47	29	2.843
Lanaldi osoko edo partzialeko ordezkapena .....	8	1.125	434	44	79	1.690
Lanaldi osoko edo partzialeko obra .....	3	3	5	2	1	14
Txanda-kontratuak .....	3	37	7	2	-	49
Praktika-kontratuak .....	2	6	4	2	-	14
<b>KONTRATUAK GUZTIRA</b>	<b>18</b>	<b>3.596</b>	<b>790</b>	<b>97</b>	<b>109</b>	<b>4.610</b>
<b>LANGILEAK GUZTIRA</b>	<b>18</b>	<b>239</b>	<b>123</b>	<b>25</b>	<b>19</b>	<b>424</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

